

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Barkos Lehendakariak berretsi egin du Gobernuak “era guztietako terrorismoaren gaitzespenarekiko konpromisoa” duela

Foru Gobernuako kontseilariekin eta beste erakunde batzuetako ordezkariekin batera parte hartu du gaur eguerdian, Terrorismoaren Biktimen Europako Egunaren harira egin den kale-agerraldian

Ostirala, 2017.eko martxoak 10

Uxue Barkos Nafarroako Lehendakariak berretsi egin du gaur Nafarroako Gobernuak "edozein eratako" terrorismoaren errefusa eta gaitzespenarekiko konpromisoa duela.

Horixe adierazi du gaur eguerdian, Nafarroako Gobernuak deituta, Carlos III.aren Etorbidean, Nafarroako

Jauregiaren fatxadaren aurrean egindako kale-agerraldiaren ondoren; bihar, martxoak 11, Terrorismoaren Biktimen Europako Eguna da, Madrilen 2004an gertatu ziren atentatuak gogoratzeko.

Kale-agerraldi horretan egon dira Gobernuko beste kide batzuk ere: Mikel Aranburu Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilaria, Ana Ollo Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako kontseilaria, Jose Luis Mendoza Hezkuntzako kontseilaria, Ana Herrera, Kulturako, Kiroleko eta Gazteriako kontseilaria, Maria Solana bozeramailea, eta Alvaro Baraibar, Bakearen, Bizikidetzaren eta Eskubide Sozialen zuzendari nagusia. Nafarroako beste erakunde batzuetako arduradunak ere egon dira; besteak beste, Parlamentuko lehendakari Ainhoa Aznarez, Pablo Azcona Nafarroako Udalerrien eta Kontzejuen Federazioko lehendakaria, eta parlamentuko eta sindikatueto ordezkariak.

Agerraldian ETako biktimarik ez egotearen inguruan galdetu diote kazetariak, eta Lehendakariak azpimarratu du "beti errespetatzen dituela pertsonen iritziak", eta bere atsekabea azaldu du "elkarren arteko aldeek, nahiz eta legitimoak izan, ez gaituztelako gaur hemen denok elkartu, beti denon helburu nagusia izan beharko litzakeen horretan: terrorismoarekiko gaitzespena martxoaren 11ko urteurrenean, Terrorismoaren aurkako Europako Egunean".

Halaber, Barkosek esan du Nafarroako Gobernuak "terrorismoaren edozein modu gaitzesten den lekuan" dagoela "gaur, eta halaxe egongo dela beti".



Gaur eguerdikoko kale-agerraldia.

Adierazpen instituzionala

Nafarroako Gobernuak pasa den asteazkenean onartu zuen adierazpen instituzional bat, terrorismoaren aurrean, "bakearen eta bizikidetzaren kultura bat defendatzen jarraitzearen" aldeko apustua egiten duena; izan ere, adierazpen horrek jasotzen duenez, "Giza Eskubideekiko erabateko errespetutik eta gertatutakoaren memoriatik soilik eraiki ahal izango dugu gizarte bidezkoagoa, solidarioagoa, etikoagoa eta demokratikoagoa, pauso sendoz aurrera egingo duena bizikidetzarentza, eta biktimek egia ezagutzeko, justiziarako eta ordaina jasotzeko duten eskubideari erantzuna emango diona".

Horri dagokionez, zera adierazi zuen Gobernuak:

- terrorismoaren biktima guztiekiko elkartasuna.
- terrorismoarekiko eta edozein ideia edo proiektu defendatzeko indarkeria erabiltzearekiko gaitzespen eta errefusa irmoa.
- biktima guztiek egia ezagutzeko, justiziarako eta ordaina jasotzeko duten eskubidea defendatzearen aldeko apustu irmoa.
- errespetuaren, bizikidetzaren eta ezberdin pentsatu eta bizi direnen arteko enpatiaren alde lan egiteko borondate irmoa.
- adiskideturako gizarte bat eraikitzeko helburua, duintasuna eta giza eskubideak bizikidetzarako funtsezko printzipio izango dituen